



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2019ko martxoaren 7an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2018/562 Dekretua

2018/568 Dekretua

2018/569 Dekretua

2018/571 Dekretua

2018/576 Dekretua

2018/578 Dekretua

2018/580 Dekretua

2018/582 Dekretua

2018/583 Dekretua

2019/007 Dekretua

2019/020 Dekretua

2019/023 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2019/025 Dekretua	2019/027 Dekretua
2019/028 Dekretua	2019/038 Dekretua
2019/040 Dekretua	2019/041 Dekretua
2019/043 Dekretua	2019/047 Dekretua
2019/048 Dekretua	2019/056 Dekretua
2019/058 Dekretua	2019/058 Dekretua
2019/060 Dekretua	2019/065 Dekretua
2019/067 Dekretua	2019/068 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- 2018 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2018ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

1.- Lizartzako Udaleko 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2018-12-31n		368.708,19
Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n		+ 27.865,92
Aurrekontuko zordunak	+ 25.403,13	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	2.462,79	
- Aplikatu gabeko kobrantzak	0,00	
Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n		- 26.749,35
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak - Aplikatu gabeko ordainketak	26.749,35 0,00	
Diruzaintzako gerakina guztira		369.824,76
Saldo kobragaitzak	-----	
Gehiegizko finantzaketa lotua:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		369.824,76

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	55.669,07
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	- 0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	102.876,08
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	158.545,15

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	0,00

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.

Udalbatzarra jakinean gelditzen da.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

TXOSTENA

AURREKARIAK

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan xedatzen du, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztan, entitateko udalbatzarrari komunikazioa helaraziko zaiola, Kontu-hartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gipuzkoako toki entitateek 2018 ekitaldirako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharreko erregelak onartzen dituen jarraibidearen 3. erregelak ezartzen du gastuaren araua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztan, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluen hirugarren apartatuan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzarrari. Aipatutako xedapenek aurreikusitakoari erantzuteko egin da honako txosten hau.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- a) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- b) 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- c) Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko azaroaren 7koa, jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

2018 ekitaldiko aurrekontuan kreditu aldaketak egin ziren diruzaintzako gerakinarekin finantzatu zirenak. Likidazio espedientearen arabera, obligazio hauek finantzatu ziren diruzaintzako gerakinarekin:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
0000.120.332.10.01	LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA.	0,05	0,05
0000.120.920.10.01	OINARRIZKO S. IDAZKARI-KONTU HARTZAILEA. OINARRIZKO S.	24,58	24,58
0000.120.920.11.01	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. OINARRIZKO S.	116,12	116,12
0000.121.153.40.01	LANETAKO OFIZIALA. SOLDATA OSAGARRIA	280,56	280,56
0000.121.332.10.01	LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA. S. OSAGARRIA	44,89	44,89
0000.121.920.10.01	IDAZKARI-KONTU HARTZAILEA. S. OSAGARRIA	339,35	339,35
0000.121.920.11.01	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. S. OSAGARRIA	295,31	295,31
0000.121.920.12.01	GARBITZAILEA. SOLDATA OSAGARRIA	108,71	108,71
0000.130.230.00.01	GIZARTE LANGILEA	305,40	305,40
0000.160.153.40.01	G.S. LANETAKO OFIZIALA	917,46	917,46
0000.162.920.00.05	LANGILEEN BIZI ASEGURUA	3.246,43	3.246,43
0000.210.454.10.01	KAMIO, KALE ETA BIDEEN MANTENIMENDUA	1.000,00	503,36
0000.211.312.10.01	OSASUN ZENTRUKO MANTENIMENDUA	93,14	93,14
0000.213.153.40.01	IBILGAILUAREN MANTENIMENDUA	3.153,21	3.153,21
0000.220.920.00.02	HARPIDETZAK E.A.	2.500,00	1.692,08
0000.221.165.00.01	ARGITERIA PUBLIKOA	1.341,21	1.341,21
0000.221.320.10.01	ESKOLAKO JANGELAKO ARGI INDARRA	102,22	102,22
0000.221.342.00.04	KIROL INSTALAZIOEN KALEFAZIOA	38,27	38,27
0000.224.920.00.99	ERRESPONTSABILITATE ZIBILAREN ASEGURUA	492,91	492,91
0000.226.341.00.01	UDALAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK	1.350,00	1.350,00
0000.226.920.00.04	AHOLKULARITZA JURIDIKOA	167,56	167,56
0000.227.151.00.01	PROIEKTUAK ETA LAN TEKNIKOAK	2.662,69	2.662,69
0000.421.335.00.01	UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA	67,60	67,60
0000.421.414.00.02	TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEA. IKT	118,30	118,30
0000.430.410.00.01	MENDITAKO BATZORDEA	9.937,38	9.937,38
0000.480.230.00.01	FAMILIEI LAGUNTZAK	320,00	320,00
0000.481.335.00.01	ERAKUNDEEI LAGUNTZAK	5.050,24	5.050,24
0000.601.153.20.01	INBERTSIOAK	31.138,28	31.138,28
0000.601.410.00.01	INBERTSIOAK. HERRI BIDEAK ASFALTATZEA	38.968,78	38.968,78
GUZTIRA		104.180,65	102.876,08

Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio horiek eragin zuten aurrekontuaren likidazioan ez betetzea aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako obligazio horiek etorkizunean gastu finkoa handitzea ekarriko dute. Hala, hurrengo ekitaldian eragingo duten gastu handiagoa 104.180,65 eurokoa izango dela aurreikusten da.

Bestalde, entitatearen aurrezki garbia honakoa izan da, aurreko urteko likidazioan eta aurtengo aurrekontuan:

Aurrezki garbia		
	Aurreko urteko likidazioan	Uneko aurrekontuan
Sarrera arruntak	676.691,30	684.367,45
Gastu arruntak	557.505,35	654.351,51
Aurrezki garbia	119.185,95	30.015,94

Gainera, ezusteko eragiketarik izan ezean, goian aipaturako gastu finko berri horretaz gain, sarrera arruntak eta gainerako gastu arruntak iraunkorrak izango dira, ez baita espero hurrengo ekitaldian gorabehera handirik gertatzerik horietan.

Ondorioz, entitatearen aurrezki garbia nahikoa da aurreko urtean diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako obligazioek eragindako gastu finko handiagoari aurre egin ahal izateko hurrengo ekitaldian.

ONDORIOAK

Aurreko urteko exekuzioa, uneko aurrekontua eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ikusirik, ezusteko eragiketarik gertatu ezean, bermatuta dago entitatearen finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako.

4.- 2018 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

Lehendakariak hartu du hitza eta 2018 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

5.- 2019/01 KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikuluko ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
211.341.00.01	Frontoiako Kanaloia	500,00	4.602,84	5.102,84
	Frontoiako Luminarien Aldaketa, Transform.	-----	14.689,64	14.689,64
227.311.70.07	Hri-terminak Errotik Kentzeko Jarduera Plana	-----	13.812,15	13.812,15
601.152.20.01	Zakar Bidea Asfaltatzea	-----	8.015,04	8.015,04
601.153.01.01	Eliza Inguruko eskailerak eta Arrapala Konpon	-----	30.073,75	30.073,75
GUZTIRA		500,00	71.193,42	71.693,42

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	0,00	71.193,42	71.193,42
GUZTIRA		0,00	71.193,42	71.193,42

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

6.- 2019 URTERAKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN EGOKITASUNAREN ONESPENA

2018ko abenduaren 27 argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2018/24 Errege Dekretu Legea; horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019 urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

Hain zuzen, 2018/24 Errege Lege-dekretuaren 3. bi artikuluan, hau dago xedatuta:

- 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneousotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langileariaren antzinasuanri dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorren, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileariaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk astetzea da.
- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: % 2,30

BPGd 2,2aren berdina: % 2,35

BPGd, 2,3aren berdina: % 2,40

BPGd, 2,4aren berdina: % 2,45

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldezturik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

Gainera, soldata masaren ehuneko 0,25eko igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste nueri batzuen artean, honakoak egin ahal izateko: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen artean berriazko osagarriak berraztertu, lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin. Artikulu honetan, 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoeran zehaztutako Administrazioetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori ehuneko 0,3ra bitartekoa izan daiteke.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azapenak emanda eta eztabaida izanda, Udaltzak ondorengo erabakia hartu du aho batez:

Lehena.- 2019 urtean, udal langileen ordainsariak, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, % 2,25 igotzea onartzea, bai oinarrizko ordainsarrietan eta ordainsari osagarrietan (alda ezineko izaera dutenak), mailan postu-mailako osagarrietan eta berriazko osagarrietan ere. Igoera kontsolidatua geratuko da eta igoera honek, 2019ko urtarrilaren 1etik izango du indarraldia.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Bigarrena.- Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera, 2018an, 2,5era iritsi eta gero, Espainiako Ministro Kontseiluak onartutakoa, 2019ko uztailaren 1etik aurrera, % 0,25eko beste igoera onartzea ordainsarian.

Hirugarrena: Ebazpen hau Udal langile guztiei jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA.- UBERETAKO ZUBITIK-IRAUNGO ZUBIA JABETZA PUBLIKOKO BIDEAREN OFIZIOZKO BERRESKURATZEA, KATENARIA ETA ATAKA BATEN INSTALAZIOAZ, ADIERAZITAKO BIDEAN AGUA DE INSALUS S.A. ENPRESAK BURUTURIKO USURPATZE EKINTZEN AURKA

Titulartasun publikoa duen katenaria eta ataka bat instalatuz AGUA DE INSALUS S.A. enpresak burutuko usurpazio ekintzen aurka jabetza publikoko bidearen ofiziozko berreskuraketarako Espediente Administratiboaren 2018ko abenduaren 17an hasiera akordioa ikusirik.

ONDORIOZTATUZ.- Audientzia tramitearen irekiera jasotzen duen akordioa interesdunei jakinarazi zaielarik, hurrengo alegazioak jasotzen dituen idazkia aurkeztu zuen Francisco Javier Malcorra Arsuaga jaunak, 2019ko urtarrilaren 9an, AGUA DE INSALUS S.A.ren izenean eta ordezkartzan.

* Bai katearen eta baita ere atakaren ezkutuko izaerak ukatzen ditu. Kateari buruz hurrengo argudiatzen du:

“2016ko maiatzaren 4ko Alkate Dekretu bidez baimendu zen enpresuki zubiko katearen instalazioa, bere kopia 1º dokumentua bezala eransten delarik. Hain zuzen, adierazitako Dekretuaren 3.3 apartatuan baimendu zitzaion AGUA DE INSALUS S.A.ri ibilgailuen igarotzea eragotziko luketen piboteen instalazioa burutzeko, oinezkoen bidea mantenduz”

“Gainera, behin hauen instalazioa burutzen hasita, 2º zbk. dok. bezala eransten den 2016ko abenduaren 7ko idatziaren bidez, Udalaren ezagutzan jarri zen instalakuntza burutzen ari zela baimenduriko baldintzetan, amaierako egoeraren argazkiak aportatuz”.

* Atakarekiko berriz, hurrengo adierazten da:

“Atakaren kokakazioari dagokionez, otsailaren 22ko idatziaren bidez, bere kopia 3º zbk dok. Bezala eransten dena, Udal honi baimena eskatu zitzaion bere instalakuntzarako, oinezkoen pasbidea baimentzen duen moduan, eta instalakuntza



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

propioen segurtasuna eta elikadura segurtasuna arriskuan jartzen duen animalien bereizkuntzarik gabeko sarbidea ekiditen”.

ONDORIOZTATUZ.- Egokitzen ematen dela alegazioak desestimatzea eta katenaria eta atakaren instalakuntzaren bidezko usurpazioaren objektu izan den bide publikoaren lurzoruaren berreskuratzea akordatzea, hurrengo oinarrien arabera:

- * Udal honentzat argi dago AGUA DE INSALUS S.A. merkantilak Obren Lizenziaren eskaera burutu zuela formalki Udal honekiko, “Herri Zubia” bezala ezagututakoaren hasieran piboteen kolokazioa burutzeko. Enpresak adierazten duen bezala, Lizenzia hori 2016ko maiatzaren 4ko Alkatetza Dekretuaren bidez eman zen, honela adierazten duelarik literalki:

“Uberetako Zubitik, Iraungo Zubiraino daon bide publikoan (AGUA DE INSALUS S.A. enpresaren atzetik dioanean) oinezkoen sarrera eta erabilera ezingo da oztopatua edo debekatua izan. Hala ere, eta ibilgailuak bertara sar ez daitezten, AGUA DE INSALUS S.A. enpresak, herri zubiaren hasieran piboteak jarri ahal izango ditu, oinezkoen sarrera oztopatu gabe”

Ikus ahal daitekeen moduan, Obren Lizenziaren objektuak soilik piboteen instalazioa aurreikusten zuen, inolako erreferentziarik egin gabe katenariaren instalakuntzari, zeren eta, katenaria ez zen AGUA DE INSALUS S.A. enpresak eskaturiko Lizenziaren objektuaren parte.

Beste alde batetik, Lizenzia berak argi uzten zuen bide publikoak ezin duela, inolako kasutan, oinezkoen pasabidea oztopatu. Nabaria da, nahiz eta interesdunak ukatu, berreskuratze espedientearen objektu den katenariak “Herri Zubia”-tik pasatzen den oinezkoentzako oztopo bat suposatzen duela, hau kokatua dagoen tartetik pasa ahal izateko eragozpen bat suposatzen duelarik zubia erabili nahi duten bizilagunentzat, partikularki bertatik pasa nahi duten adinekoentzat edota mugikortasun mugatua duten pertsonentzat, azken hauekiko, katenariak oztopo gaindiezin bat suposa dezakeelako, izaera publikoagatik orokortasunez Lizartzako bizilagunena eta ez soilik AGUA DE INSALUS S.A. Merkantilarena den bide baten erabilera normala oztopatzen diena.

Horretaz gainera, instalaturiko katenariak ez duela inolako funtziorik betetzen adierazi beharra daukagu, zeren, piboteak dira interesdunaren lursailetan ibilgailuen sarrera eragozten dutenak, eta ondorioz, katenariaren desagerpenak ez lioke inolako kalterik sortuko AGUA DE INSALUS S.A. enpresari.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Beraz, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko legean ezarritakioaren arabera, bere 219 artikuluan, katenariaren kolokazioa ezkutuko ekintza bat dela berradierazi beharra daukagu, Lizartzako Arau Subsidiarioen 5.b) artikuluan aurreikusitako udal baimenaren faltagatik, herri jabariko izaera duen bide batean gainera.

- * Atakari dagokionez, egia da 2017ko otsailaren 22an idatziz eskatu zela bere instalakuntza aurrera eraman ahal izatea, baina egia da ere Udala ez dela inolako baimenik ematera iritsi, adierazitako atakaren instalakuntza aurrera eraman ahal izateko.

Lehen aipaturiko ekainaren 30eko 2/2006 legeak, argi uzten du bere 207.1 I) artikuluan, finken, hormen eta hesien itxiturarako, (gure kasuan ematen den bazala, beharrezkoa da lizentzi edo baimen municipalak lortzea; horrela adierazten du 5. b) artikulua bere arau subsidiarioetan.

Horretaz gainera, ekainaren 30eko 2/2006 legeko 211.1 artikulua adierazten du:

- 1.- *Hirigintzako lizentzia lortzeak legitimatu egiten du ekintza eta operazioak egikaritzea, bai eta dagozkion erabilera eta jarduerak ezartzea eta garatzea ere. Inola ere ez da bereganatuko -ezta aldeko administrazio-isiltasuna dagoenean ere- hirigintzako antolamenduarekin edo indarrean dagoen legeriarekin bat ez datorren eskumen eta eskubiderik.*

Eztabaidaren objektu den ataka ondasun publiko baten erdian kokatua izan da, beraz, agerikoa da interesdunak ezin duela jabari publikoko izaera duen bide baten gainean xedatu, isilpean.

Beraz, 2/2006 legeko 219 artikulua arabera, ezkutuko obra bezala kontsideratu beharra dago ere.

ONDORIOZTATUZ.- “Uberetako Zubitik-Iraungo Zubia” bezala ezaguturiko bidea aintzina aintzinatik, erabilera eta jabari publikoko ondasuna izan dela eta orain AGUA DE INSALUS S.A.k instalaturiko katenariak eta atakaz partzialki afektatua dagoela, Udal honen baimenik gabe, inongo momentua ez duelarik bide publikoaren okupazioa onartu hau aurrera eraman den moduan.

ONDORIOZTATUZ.- Erabilera eta jabari publikokoa den bidearen katenaria eta ataka bidezko okupazioak, usurpazio bat suposatzen duela, Administrazio hau baimentzen duen berreskuratze espedientea ofizioz tramitatzeko, eta errekerimendua egiteko,



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

aurretiaz dagokion espedientearen bidez, bidea libre utz dezan edozein okupaziotik eta garbi, lehenagoko egoera berdinean utziz.

KONTSIDERATUZ.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 68 artikuluan ezarritakoa.

KONTSIDERATUZ.- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan 44.1c) eta 70 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa, Toki Erakundeen ofizioz berrskuratzeko botereari buruzkoa, Lizartako Udalbatzak

ERABAKI DU:

LEHENENGO.- Uberetako Zubitik-Iraungo Zubia bezala ezaguturiko bide publikoa ofizioz berreskuratzea, AGUA DE INSALUS S.A.k instalaturiko katenaria eta ataka bitartez okupatua, eta **AGUA DE INSALUS S.A.**ri errekerimendua egitea, 15 eguneko epean, honen jakinarazpena egiten den egunetik kontatzen hasita, bide publikoa libre utz dezan, katenariaren eta atakaren instalakuntza egin zeneko aurretiazko baldintza berdinetan, hauen kentzea burutuz.

Onarpena egitea, ez badu horretarako emandako epean errekerimendua borondatez betetzen, Lizartako Udalak ofizioz burutuko duela berreskuratzea, exekuzio subsidiarioaz, non Udal honetako pertsonal teknikoa bide publikoaren berreskuratze lanak egiteko azalduko den katenariaren eta atakaren kentzearen bitartez, eta lurzoruaurreko egoeraren berreskuratzeari ekingo dio, zure kontura, dagokion zebatekoagatik likidazio egokia igorri zurekiko, eta beharrezkoa izateko kasuan, premiamendu bidea erabiliz zuen ondarearen aurka.

BIGARREN.- Akordio hau, AGUAS DE INSALUS S.A. merkantilari eta interesdunak suertatzen direnei jakinaraztea, honen aurka berraztertze errekurtsua tarteratu ahal izango delarik, hilabete bateko epean, edo zuzenean errekurtsu kontentzioso administratiboa tarteratzea, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean.

ZORTZIGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMENA, UDALA ETA TOLOMENDI ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA LANAREN SUSTAPENERAKO

Idazkaritzak 2019ko martxoaren 4an egindako txostena ikusi da, Lizartako Udala eta Tolomendi-ren artean, elkarlanean, Tolosaldeko udalerrien informazio eta



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza lana bideratzeko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2018ko abenduaren 31n jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2019ko martxoaren 4ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Tolomendi-ren artean, elkarlanean, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza lanabideratzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

LANKIDETZA - HITZARMENA, LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOMENDI ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA LANAREN SUSTAPENERAKO

Tolosan, 2018ko abenduak 31an

BILDURIK

Leire Gordo Castro, Lizartzako alkatea, Lizartzako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Iker Karrera Aranburu, Tolomendi Landa Garapen Elkarteko Gerentea, erakunde honen izenean eta hura ordezkatzuz.

Esku-hartzaileek, beren karguei dagozkien funtzioak betez, esku hartzen duten bezala, hitzarmen honetarako erabateko gaitasuna aitortzen dietela elkarri, eta ondorio horietarako:

ADIERAZTEN DUTE



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Lehenengoa.- Erakunde publikoek herritarrei zerbitzua modu egoki batean eman ahal izateko informazio eta komunikazio teknologien inguruan ezagutza edukitzea eta egunean egotea ezinbestekoa dela, izan ere administrazio elektronikoaren inguruko 11/2007 legeak dioenez, udalak zerbitzua elektronikoak emateko gai izan behar dira eta herritarrak zerbitzu hori jasotzeko eskubidea izan behar du.

Bigarrena.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteak eta **Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua** sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udal erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ondorioz, Lizartzako Udalak eta Tolomendi Landa Garapen Elkarteak, lehenago adierazitakoa kontuan izanik, lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauek kontuan hartuta:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen helburua da Lizartzako Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko harremana arautzea, IKT aholkularitza eta dinamizazio lanak egiteko Tolosaldeko udalerrietan informatika zerbitzuak kontratatzeko.

Bigarrena.- Hitzarmen hau sinatzean, Tolomendi Landa Garapen Elkarteak eta Lizartzako Udalak, konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Tolomendi Landa Garapen Elkarteak Lizartzako udalean IKT aholkularitza eta dinamizazioa modu partekatuan jardungo duen teknikaria hautatu eta kontratatuko du ondoren adierazten diren funtzioekin bat datorren profila kontuan izanik. Teknikari honen funtzioak honakoak izango dira:

Tekniko lanak:

- IKT inguruko ekipamenduarekin arazo teknikorik ezean nola jokatu eta irtenbide egokiena bilatzen saiatu, bai praktikoki eta ekonomikoki
- Programa edo software ezberdinaren instalatu edo lagundu.
- IKT inguruko hizkuntza eta terminoetan "itzultzaile" lanak, azalpenak, ea.
- Erabilzaileak egunerokotasunean dituzten intzidentzien aurrean babes bat izan
- Web orrialdeen mantenua.

Aholkularitza lanak:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- IKT inguruko mugimendu guztiekiko aholkularitza lanak, ekipamendua bereganatzerakoan, instalazioen hobekuntzan eta aprobetxamenduan, software edo programa berriak erosi edo instalatzerakoan, egunerokotasunean mesedegarria izan daitezkeen aplikazio eta konfigurazio egokienak ezartzerakoan ... beti ere ekonomi arloa gogoan izanik. Inoiz ez bai da izango etekin ekonomikoa ardatz duen erabakirik izango tarteko.
- Izfe-rekiko bitartekari lanak, haiekin bildu, batzordeetan parte hartu, bitartekari gisa jokatu gai teknikoan inguruan.
- Izfe-udalak komisioari jarraipena eman eta udal herrien interesak defendatu.
- Udalerrien IKT inguruko ahotsa bilakatu.
- IKT inguruko fakturazioak aztertu eta negoziatu. Kostuak murriztu.
- Udal zerbitzu berrien inguruan informazioa jaso eta bilatu.
- Etorkizunean egon daitezkeen onuren berri izateko informazio eguneratuaren bilketa egin.

Dinamizazio lanak:

- Udala eta herritarren arteko harremanak hobetzen dituen tresnak erabil araztea.
 - Herritarrei eskaini ahal zaizkien IKT zerbitzuen inguruan informazioa jaso eta bideratu.
 - Ikastaroak bultzatu udal langileentzat bere egunerokotasunean lagunduko dienak.
 - IKT tresna baliogarrienak erabiltzearen dinamizazioa.
- Lizartzako Udalak urte bakoitza hasterako aurreikusi eta jakinaraziko dio Tolomendi Landa Garapen Elkarteari behar duen dedikazioa. Hala ere, justifikatuta dagoen kasuetan urtean zehar aldatu eta egokitu ahal izango da dedikazio hori udalaren benetako beharretara.
 - Lizartzako Udalarekin ondorengo baldintza hauek adostu dira honako hitzarmenaren bidez:
 - Dedikazioa: teknikariak astean behin jardun erdiko dedikazio eskusiboa izango du eta dedikazio amankomun orokor bat ere eskainiko du, arazo amankomunei irtenbide emateko.
 - Iraupena: 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra
 - Zenbatekoa: 284,90 euro hileko
- c) Urtean zehar diru-laguntzaren bat jasoko balitz, urte amaieran udalari egokitutako laguntzaren zatia konpentsatuko litzaioke.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Hirugarrena.- Hitzarmen honen bitartez teknikarien dedikazioa bakarrik arautzen da.

Teknikarien lanetik erator daitezkeen proiektuek tratamendu berezia izango dute eta kasu bakoitzean aurreikusiko da nola kudeatu kostua eta kanpotik lor daitekeen finantziazioa.

Laugarrena.- Kontratua sinatzen denean indarrean dagoen Datuen Babeserako legeari jarraituz, zerbitzua eskaintzerako orduan lortutako informazio eta datu pertsonalak ez direla beste inon erabiliko ziurtatzen dizuegu. Betebehar hau ez da etengo, lan harremana amaitu arren.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek bertan behera utz dezakete, baldin eta hiru hilabete lehenago jakinarazten badiote beste alderdiari, betiere, gauzatzen ari diren lankidetzak guztiak amaitu ostean.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkatea den, LEIRE GORDO CASTROK, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

BEDERATZIGARRENA.- MOZIOAK

MENDEBALDEKO SAHARA

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Tolosaldeako udalbatzei ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu, bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

- 1.- Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuen etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagertaketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoak salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 2.- Mendebaldko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarria izateari utzi diezaion.
- 3.- Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600 km. luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.
- 4.- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar Batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.
- 5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublikoa Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.
- 6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA

Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen % 75 euskal hiztuna da, beste % 10ak ulertu behintzat egiten du, eta gelaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren mugan daude. Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gure ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da. Globalizazio garaioan, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude eutsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko. Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako, gozamenerako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberritze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnasmune euskararentzat. Baina ausardiaz, koherentziaz eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetako lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatuak eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordatzen diren, heldu dio 2018an zehar gai horretan sakontzen aritu den Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko Lan Mahaia. Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta berau eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berritzaile eta erreferentziazkoa eraikitzeko urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia. Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen zerbitzura: **TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA.**

Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baitan hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta a benduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaik eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkari zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza honek **ADIERAZTEN DU:**

- 1.- Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan - horietako batean, batzuetan edo guztietan- euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, legez ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua.
- 2.- Bat egiten duela eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmorekin.
- 3.- Bat egiten duela Tolosaldeko Euskararen Mahaia izango dituen Misio eta Helburuekin:
 - a Misioa: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia zian dadin bere lur-eremu osoan.
 - b Helburu estrategikoak:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- i. Gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.
- ii. Eskaulde mailako hizkuntza politika definitzea.
- iii. Normalizazio erreala lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.
- iv. Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.

c) Helburu estrategikoak:

- i. Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa ...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.
- ii. Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.
- iii. Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.

4.- Lizartzako Udala gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan parte hartzeko eta lankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarritz, edota, hala badagokigu (Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki sustengatuz.

5.- Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutela murrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzeko dudaren erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzen diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jarduera eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean.

Lizartzako Udaltzaren, Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratzeko egitasmoa babestea eta agiri honetan zehaztutako konpromisoak hartzea onartu du.

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN EGITASMOA ONARTZEKO ETA HURA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEKO



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Emakumeen etxeak eta txokoak Mugimendu Feministaren erreibindikazio historiko izan dira eta dira. Eskaera hori 80ko hamarkadan hasi zen gauzatzen Estatuan, hain zuzen ere, Zaragozako eta Kataluniako ekipamenduak sortu zirenean. Euskal Herrian, berriz, 2003koak dira lehen ekimenak, emakumeen etxeak jarri zirenean Ermuan aurrena eta Arrasaten ondoren, eta 2004an ireki zuten Eibarren.

2010etik aurrera etorriko ziren besteak: Gipuzkoan, Donostian, Hernanin eta Azpeitian; Bizkaian, Basaurin, Ondarroan eta Durangon; eta Nafarroan, Iruñean. Denek helburu bera dute, baina bakoitzak bere egiturak, kudeatzeko modua eta funtzionamendua ditu, udalerrri bakoitzaren erralitate eta beharretara egokituta. Aipatzekoak dira Donostiako eta Ondarroako etxeak, kudeatzen baitutzte Udalaren, erakunde feministen eta emakumeen ehun asoziatiboaren artean.

Etxe hauek sortu zituzten politika feministak bultzatzeko eta emakumeen erreferente izateko. Leku hauek elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko dira, eta, era berean, abiapuntu dira emakumeek parte har dezaten udalerriko politikan eta bizitzan. Era askotako gaiak izaten dituzte aztergai eta herriko kolektibo feministen eta emakume-taldeen kezkak eta jakin-mina jasotzen dira, besteak beste, teoria, literatura edo genealogia feminista, indarkeria matxista, autodefentsa feminista, sexualitatea, abortatzeko eskubidea, emakumeen arteko ahizpatasuna; aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen da; liburutegi espezializatuak antolatzen dira ...

Aurrekariak

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat anolatu zen eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeke. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Gainera, iazko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu da. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea, elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea eta errealitate bihurtzeko plangintza edo bide-orria lantzea, eta, azkenik, herriko nahiz eskualdeko eragile eta herritarrak era honetako ekipamenduaren beharraz sentsibilizatzeko komunikazio-kanpaina garatzea.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Horrela, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan emandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu bat izateko.

Urte horretan, era berean, Emakumeen Etxearen lan-talde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan biltzen dira Udal gobernua, oposizioko zinegotziak eta emakumeen ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Talde honen helburua da, besteak beste, elkarlanean proiektua kokatzea eta minimo batzuk definitzea eta adostea. Horrela, hainbat gai tratu dira: etxearen arrazoiak, definizioa, lan-ildok, eskainiko diren zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lantalde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada feministako ordezkariak, emakumeen taldekoek, emakume norbankoek eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume orok). Parte-hartze prozesua Elhuyar Aholkularitzako teknikariek garatu da.

Horrela, prozesu parte-hartzailea bi fasetan garatu zen: lehen fasean, maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, helburua, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak definitu ziren; eta bigarren fasean, irailtik abendura bitartean, etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak eta abar definitu ziren. Prozesuan zehar, guztira, eskualdeko 104 emakume unguruk hartu dute parte.

Horiek horrela, Lizartzako Udaleko udal taldeek Osoko Bilkura honetan erabakitzen dute ondorengo konpromisoak hartzea udal esparruan:

- 1.- Onartzea Talde Eragilean sortutako eta Emakumeen Gune Zabalean onartutako Emakumeen Etxearen egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.
- 2.- Babestea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa, balizko aldaketa politikotik harago, eta prozesua nahiz emaitza alderdi politikoen interesen logikatik kanpo mantentzea.
- 3.- Sozializatzea eta ikusgarri egitea herrian Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan egin den prozesua nahiz emaitza bera (Udalaren web orriaren, sare sozialen edo udal aldizkariaren bidez zabaltzea).



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

4.- Baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jartzea, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Egitasmoa onartzeko eta hura garatzeko konpromisoa hartzeari buruzko mozioa, aho batez onartua izan da.

HAMARGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:30etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia